

**Sektore pribatuan
sexuagatiko bereizkeria-egoeretan dauden
herritarrei arreta emateko zerbitzua**

TXOSTENA 2013

SARRERA.....	3
1. MARKO OROKORRA.....	4
1.1. Erantzundako kontsultak.....	5
1.2. Artatutako kexak eta salaketak.....	6
2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA.....	8
3. BIDERATUTAKO ETA GUTXIETSITAKO KEXA ETA SALAKETAK.....	15
3.1 Bideratutako eta gutxietsitako kexak.....	15
3.2 Bideratutako eta gutxietsitako salaketak.....	16

SARRERA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 70. artikuluan (otsailaren 16ko 3/2012 Legearen bidez aldatu da) ezarritakoa betetzeko, 2013. urteko txostena egin du; bertan, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoeran dauden herritarrei arreta emateko artatutako kasuen zerrenda jasotzen da. Txostenean, aldi berean, ukatutako kexa eta salaketen zerrenda ere jasotzen da, horretarako motiboekin batera.

Txostena hiru ataletan egituratzen da, eta, lehenengoan, sektore pribatuan sexu-bereizkeriagatik herritarrei arreta emateko jarduketaren esparru orokorraren berri ematen du eta artatutako kontsulta, kexa eta salaketen datu orokorrak jasotzen ditu. Bigarren atalean, izapidetutako kexa eta salaketei buruzko informazioa jasotzen da, bai eta eraginpeko eremu bakoitzeko esparru juridikoa ere. Eta, azkenik, hirugarren atalean gaitzetsitako kexa eta salaketen berri ematen du eta, kasu bakoitzean, beste instantzia eskudun batzuetara bideratu direnen berri.

Ez da irizpenik eman 4/2005 Legearen 71. artikulua aipatzen duen Lan Prozedurari buruzko Legearen 95.3. artikulua gainean.

1. MARKO OROKORRA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzea xedatu zen, sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko organo gisa. Bere funtzioak eremu pribatura mugatzen ziren.

Otsailaren 16ko 3/2012 Legeak –horren bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eratzeko Legea aldatu ziren– Defentsa Erakundea ezabatu eta bere edukiak, eskumenak eta funtzioak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitu zizkion; hala ere, funtzioak egokitu egin zituen, adskripzio organiko berriaren arabera, eta, beraz, gaur egun honako hauek dagozkio:


- a) Ikerketak egitea, ofizioz edo alderen batek eskaturik, sektore pribatuan ustez gertatutako sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak argitzeko.
- b) Negoziatzeko bideak ematea eta gomendioak egitea pertsona fisiko nahiz juridikoei, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak edo ekintzak zuzentzeko, eta gomendio horien jarraipena egitea, betetzen diren ala ez ikusteko.
- c) Herritarrei aholku ematea, sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoerak egon daitezkeenean.
- d) Bitarteko izatea jazarpen sexistaren kasuak konpontzen laguntzeko.
- e) Egiten dituen jardueren eta ikerketen berri ematea, eta txostenak eta irizpenak egitea, lege honetan xedatutakoarekin bat.
- f) Lan-arloko agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan bereizkeriaren aurkako lan-arauak betetzen diren begiratzeko.

1.1. Erantzundako kontsultak

Herritarrek informazioa eta aholkularitza eskatu edo kexak eta/edo salaketak aurkeztu ditzakete, dela aurrez aurre, dela telefonoz edo posta elektronikoz edo posta arruntez.

2013an informazioa eta aholkularitza emateko egindako eskaerak kontsulta gisa erregistratzen dira; **378** izan dira. Herritarrek Emakunderekin harremanetan jartzeko erabili dituzten bideak, ondorio horietarako, honako hauek izan dira: telefonoz (204), aurrez aurre (105), posta elektronikoz (37) eta posta arruntez (32).

Herritarrek Emakunderekin harremanetan jartzeko baliatu duten moduaren arabeko kontsultak




Sarritan egiten dira sektore pribatuan sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzeko funtzioekin zuzeneko harremanik ez duen informazioaren eskaerak, eta dibortzio- eta banantze-egoeretan –kontsulten % 20 baino gehiago– dauden baliabide edo laguntzetara jotzeari –kasuen % 30 inguru– buruzkoak izaten dira; kasu horietan, informazio orokorra eskaintzen zaie eta, beharrezkoa den kasuetan, zein zerbitzutara jo behar duten zehatz esaten zaie.

Egoera hori kontuan hartuta ere, artatzen den kontsulta-kopurua altua dela uste da, azkenean jartzen diren kexa edo salaketei dagokienez. Datu horiek salaketak jartzeak ekar ditzakeen ondorioek eragin dezaketen beldurraren adierazle dira eta, beraz, herritarrei dauzkaten eskubideen berri emateko beharraren adierazle, bai eta botere publikoek eskubide horiek baliatzen direla ziurtatzeko adierazle ere.

1.2. Artatutako kexak eta salaketak

2013an, herritarrek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean, guztira, 16 kexa eta 21 salaketa aurkeztu zituzten¹. Kexen kasuan, eraginik gehien jasan duen eremua lan-eremua izan da; eremu hori zerrendan bigarrena da, salaketen kasuan, kasu horretan publizitatea izanik nagusiena.

Jarraian, banaketa aurkeztuko dugu, eraginpeko eremuen arabera:




Sarreran azaldu den bezala, Emakundek sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzeko kasuan duen eskumena eremu pribatura mugatzen da beraz, sektore publikoari dagozkionak Arartekoari bideratzen baitzaizkio, sektore horretako erakunde eskudunari. Bestalde,

¹ Barne-prozedura hobetzeko, jasotako erreklamazioak kexa eta salaketetan sailkatzen dira. Kexatzat hartzen da sexuagatik ustez bazterkeriaren bat jasan duen pertsona batek edo pertsona-talde batek aurkeztutakoa; salaketatzat jotzen da sexuagatiko bazterkeriarik jasan gabe, hura gertatu dela salatzen duen pertsona batek edo pertsona-talde batek jarritakoa.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren jarduera-esparrua gainditzen duten kasuak Estatuko Emakume Erakundera bideratu dira. 3. atalean, aipatutako erakundeetara bideratutako kasuei erreklamazioa aurkezteko motiboak adierazi dira.

Azkenik, aipatu beharra dago, oro har, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea ez dela sartu behar epai irmoa izan duten eta ebazpen judizialaren zain dauden kexen azterketan, ez eta pertsonen intimitateari edo sexuagatiko bazterkeria-egoerarekin zerikusirik ez duten gaiei buruzkoetan ere.

Jarraian, kexa eta salaketak erakusten dira, izapide-motaren arabera bereizita:



2. MARKO JURIDIKOA ETA IKERTUTAKO KEXA ETA SALAKETEN TRATAMENDUA.

Sexuagatiko bereizkeria-egoeretan herritarrak defendatzeko jarduketaren marko juridikoa, gaur egun, zabala eta konplexua da. Jarraian, berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezerako eskubidearen alde egitea babesten duten **oinarrizko arauen** aipamena dugu:

- Emakumearen aurkako Bazterkeria Modu guztiak Ezabatzeko Hitzarmena; NBEaren esparruan hartutako nazioarteko araua –horren bidez, estatu sinatzaileek, bitarteko egoki guztien bidez eta luzapenik gabe, emakumeen kontrako bereizkeria ezabatzeko politika jarraitzea hitzartu dute–. Hori horrela: “emakumearen aurkako bereizkeria” esamoldeak agertuko du sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean kaltetzea edo deuseztatzea (politika-, ekonomia-, gizarte- nahiz kultura-esparruetan, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan) emakumeari aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, eta horien izatea eta egikaritzea, haren egoera zibila gorabehera, gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna oinarri.
- 1978ko Espainiako Konstituzioa; horren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak berdinak direla legearen aurrean, eta ezin dela sexuagatiko bazterkeria gailendu.
- Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzkoak, xedatzen du emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak edozein motatako diskriminazio baztertzen duela, zuzeneko edo zeharkakoa izan, sexu arrazoiagatik eta, batez ere, amatasunaren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoak.
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak – 3/2012 Legeak aldatuta–, tratu-berdintasunaren printzipioaren barruan, pertsonen sexuan oinarritutako bereizkeria oro debekatzen du, zuzena ala zeharkakoa izan eta horretarako erabiltzen den modua edozein dela ere.

Arlo guztietan eragina duen araudi orokorraz gainera, eremu guztietarako araudi berezia ere badago. Hemen, memoria honi dagokion epean, erreklamazioaren motiboa sarrien ekarri duten eremuetan eragina daukaten arauen erreferentziak jasotzen dira.

Lan-eremuan izan dira kontsulta, salaketa eta kexa gehien eta, horren barruan, haurdunaldiarekin, amatasunarekin eta edoskitzearekin lotutako eskubideak dira garrantzirik gehien duten kontuak, bai eta familia- eta lan-bizitza uztartzeko baimenei buruzkoak ere. Familia-etxeko enpleguari buruzko araudia ere kontsulta ugariaren motibo da.

Hori horrela, aplikazio bereziko arau gisa honako hauek aipatuko ditugu:

- Langileen Estatutuaren 17. artikulua sexuagatiko zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak dakartzaten araudi, hitzarmen, itun eta erabakien baliogabetasuna ezartzen du.
- Azaroaren 5eko 39/1999 Legeak, Langileen Familia eta Lan Bizitzaren Kontziliazioa sustatzekoak, garrantzi handia izan du, lan-eremuan sartutako legegintzako aldaketak direla eta, langileen kontziliazioa errazteko lan- eta familia-erantzukizunen artean.
- Abenduaren 16ko 56/2003 Legea, Enpleguari buruzkoa; horren 22bis artikulua nabarmendu behar dugu, enplegura jotzeko bereizkeria debekatzeari buruzkoa.
- 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa, familia-etxeko zerbitzuaren izaera bereziko lan-harremana arautzen duena.

Eremu horri dagokionez, jarraian, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Herritarren Berdintasunerako eskubideak Defendatzeko Arloan jarritako kexa eta salaketen sintesia jasotzen da; horien gaineko eta kasu bakoitzean egindako kontziliazio-proposamenen eta gomendioen gaineko ikerketa-prozedura zabaldu da.

Espediente zk.: Q20130009.

Kexaren arrazoia	Sexuagatiko usteko bereizkeria lan-eremuan, enpresako lanpostu baterako langileak hautatzean. Gizonezko hautagai bat bazterten da, emakumezkoak kontratatu nahi direlako. Iragarkiaren idazketan akatsa egon dela alegatzen da.
Emakunderen esku-hartzea	Gertakari, analisi eta horien balioespenari buruzko informazioaren eta alegazioen eskabidea.
Emaitza	Enpleguari buruzko 56/2003 Legea betetzeko gomendioa bidaltzen da; izan ere, 22bis 2 artikuluan, enplegura jotzeko bereizkeriari buruzkoan, zera adierazten da: "... bereizkeriazkotzat joko dira sexueta bati bideratutako eskaintzak...".

Espediente zk.: D20130022.

Salaketaren arrazoia	Ikastetxe batek salatu egin du kontrata pribatu bateko, EUSKOTRENEko, langile batek emakumezko ikasle batzuei emandako tratua.
Emakunderen esku-hartzea	Emakundek langilearekin eta ikastetxearekin izan ditu elkarrizketak.
Emaitza	Kontratututako enpresak jakinarazi du langilea zerbitzuz kanpo utzi dela, jokabide desegokia izan duelako; Emakundek ikertu egin du alderdi hori, egiazkotasuna berresteko, eta emaitza positiboa izan da.

Espediente zk.: Q20130031.

Kexaren arrazoia	Haurdun egoteagatik kaleratutako langilea.
Emakunderen esku-hartzea	Ikerketa-prozedurari hasiera eman zaio, eta eten egin da enpresaren eta langilearen artean akordioa lortu delako.
Emaitza	Enpresaren alegazioak jaso ondoren, kontziliazio-aktan islatutako akordioarekin batera, ebazpena eman du, eta horrek amaiera eman dio prozedurari; halaber, enpresarentzako gomendioa ere jasotzen du, langileek amatasuna libreki gauza dezatela aukeratu ahal izan dezaten.

Espediente zk.: Q20130032.	
Kexaren arrazoia	Langile batek funtzioen eta kokapen fisikoaren aldaketak alegatu ditu, amatasun-baimenaren ondoren enpresara berriro sartzean. Halaber, soldatan nahiko beherakada handia izan duela adierazi du.
Emakunderen esku-hartzea	Ikerketa-prozedura hasi da. Aldeek alegazioak egin dituzte eta bisita egin da enpresara.
Emaitza	EMAKUNDEK ebazpena eman du eta horren bidez balioesten du badagoela sexuagatiko zuzeneko bereizkeria, eta enpresari gomendatu dio indarrean dagoen legeria betetzeko.

Sexu-bereizkeria dela eta salaketarik gehien jasotzen duen bigarren eremua **komunikabideena eta publizitatearena** da, alegia, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eskumeneko eremuko publizitatean eta komunikazioan sexismoa dagoelako.

Eremu horretako araudi berezia honako lege-testuetan jasotzen da:

- 34/1988 Lege Orokorra, azaroaren 11koa, Publizitateari buruzkoa, pertsonaren duintasunaren aurka doan edo Konstituzioaren 14. artikuluan aitortutako balio eta eskubideak urratzen dituen publizitatea legez kanpokotzat jotzen duena; bertan, emakumeak modu iraingarrian erakusten dituen publizitatea adierazten da. Iragarki bat aurreko aurreikuspenaren barruan dagoela ulertuko da, baldin eta emakumeen gorputza edo gorputzaren zati batzuk produktuarekin loturarik izan gabe objektu soil gisa baino ez eta zuzenean erabiltzen ditueanean, beren irudia geure araubideko oinarriak urratzen dituzten jokabide estereotipatuekin lotuta azaltzen denean eta, horren ondorioz, Genero-indarkeriaren Kontrako Babes Osorako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, aipatzen duen indarkeria sortzen laguntzen duenean.
- Genero-indarkeriaren Kontrako Babes Osorako Neurrien 1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, 14. artikuluan ezartzen du komunikabideek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna babestu eta zaindu behar dutela eta horien arteko bereizkeria oro saihestu behar dutela. Era berean xedatzen du emakumearen aurkako indarkeriaren gaineko informazioak hedatzean indarkeriaren biktima diren emakumeen eta euren seme-alaben giza eskubideak, askatasuna eta duintasuna defendatzea bermatuko dela.

- 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eraginkorrari buruzkoak, halaber, agindu egiten die komunikabideei emakume eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzea, edonolako bereizkeria-mota saihestuz.
- Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakume eta Gizonezkoen arteko Berdintasunari buruzkoak, honako hau ezartzen du: «Debekatuta dago pertsonak beren sexuaren arabera duintasunari dagokionez nagusi edo menpeko gisa, edo sexu objektu huts gisa irudikatzen dituzten edo emakumeen kontrako indarkeria justifikatu, hutsal gisa aurkezten edo sustatzen duten publizitate iragarkiak egin, igorri eta erakustea».
- 360/2013 Dekretua, ekainaren 11koa, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez sexistarako Aholku Batzordea –BEGIRA– arautzen duena. Organo horren eginkizuna Euskal Autonomia Erkidegoan errotutako hedabideen eta ohiko publizitate euskarrien bidez emandako publizitateari buruzko aholkularitza ematea eta azterketa egitea da, publizitatearen eta komunikazioaren esparruetan pertsonen sexuagatiko bereizkeria-mota oro erauzteko xedez.

Eremu horri dagokionez ere, salaketaren laburpena jaso da; erakunde honek ikerketa-prozedura zabaldu horren gainean, bai eta egindako egindako gomendioen gainean ere:

Espediente zk.: D20130055.	
Salaketaren arrazoia	Gizonen aurkako publizitate sexistaren salaketa, emakume batek gizon baten burua zapaltzen duela ikusten den kartela identifikatzean. Saltoki handi batzuen iragarkia.
Emakunderen esku-hartzea	Emakundek saltoki handiekin izan du elkarrizketa, iragarkiaren ardura duen enpresa baita.
Emaitza	Emakundek gomendio batzuk bidali dizkio iragarkiaren ardura duen enpresari, eta iragarkia kentzeko proposatu dio eta hurrengo iragarkiekin kontuz ibiltzeko. Iragarkia, ordurako, kenduta egon da.

Beste eremu batzuetan ere izan dira kexak edo kontsultak, besteak beste, hezkuntzakoan, kulturakoan eta aisiakoan. Zehazki, **hezkuntza-, kirol-eta jolas- eta kultura-eremuetan** erregistratu dira kasu batzuk.

Lehenengo kasuan aipatu behar dugu 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, adierazten duela hezkuntza-politikak pertsonaren garapen integralean oinarritu behar direla, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utziz, bereizkeria-mota oro baztertuz eta generoak bereizi gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatuz. Horretarako, besteak beste: *“Debeku da pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen testu-liburu edo irakaskuntzako material oro zabaldu eta erabiltzea Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere”* (30. artikulua).

Salaketa honen gainean ikerketa-prozedura eta kontziliazio-proposamenen prozedura zabaldu da eta gomendioa egin dira:

Espediente zk.: D20130041.	
Salaketaren arrazoia	Herritar batek testu-liburu baten edukia salatu du, <i>neskatoen aurka doazen eta desberdintasuna eragiten duten genero-estereotipoak sustatzen dituelako.</i>
Emakunderen esku-hartzea	Emakunde argitaletxearekin harremanetan jarri da, eta salaketaren berri eman dio. Informazioa eskatu dio.
Emaitza	Emakundek argitaletxeari gomendioak bidali dizkio, eskolako testuen edukia kontrola dezan, testu berrietan salatutako estereotipo sexistarik errepika ez dezan.

Kirol-eremua dela eta, 3/2007 Lege Organikoak kirola garatzeko egitasmo publiko guztien diseinuan eta egikaritzean emakume eta gizonen arteko berdintasun errealaren eta eraginkorraren irizpideak txertatzen dituela azpimarratzen du. Herritarren eskubideak Defendatzeko Arloan aurkeztutako salaketaren sintesia hauxe da:

Espediente zk.: D20130078.	
Salaketaren arrazoia	Eginoko hormetan (Araba) eskaladako bideen izena salatu da. Adibide batzuk aipatu ditu: " <i>Todas las mujeres tienen algo de putas</i> "; " <i>Techos como tus pechos</i> ", " <i>Estúpidas niñas bonitas</i> ", " <i>Aingeru gran paquete</i> "
Emakunderen esku-hartzea	Arabako Mendi Federazioari laguntzeko eta aipatutako izen horiek ezabatzeko eskatu dio.
Emaitza	Arabako Mendi Federazioari izenak aldatzeko gomendioa bidali zitzaion.

Sozietate gastronomikoak direla eta, Defentsa Erakundeak 2011. urtean eginiko txostenean adierazten da sozietate gastronomikoko kideek sinatutako elkarte-hitzarmena elkarteei dagokienez aplikagarriak diren xedapenen baldintzapean dagoela, bai eta sexu-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren inguruan indarrean dagoen araudiaren baldintzapean ere, eta hori guztia nahitaez bete behar dute bai herritarrek, oro har, bai administrazio publikoek. Eremu hori dela eta, jarraian, jasotako kexa baten sintesia jaso da, horren gaineko ikerketa-prozedura zabaldu dela kontuan hartuta:

Espediente zk.: Q20130033.	
Kexaren arrazoia	Jolas- eta kultura-sozietate batek debekatu egin dio emakume bati bazkide izatea
Emakunderen esku-hartzea	Biekin izan ditu elkarrizketa Emakundek eta informazioa eskatu die
Emaitza	Gomendioak bidali dizkio jolas- eta kultura-sozietateari, emakumeen aukerak ez oztopatzeko.

3. BIDERATUTAKO ETA GUTXIETSITAKO KEXA ETA SALAKETAK

Aurretik aipatu dira, lehenengo puntuan, jasotako erreklamazioen bideratzea edo gutxiespena eragin duten motiboak. Atal honetan, bideratutako edo, hala badagokio, gutxietsitako kexa edo salaketa bakoitza eragin duten kausei buruzko informazioa zehazten da.

3.1 Bideratutako eta gutxietsitako kexak

BIDERATUTAKOAK	
Erreferentzia-zk.	Estatuko Emakumearen Institutuari
Q20130008	Sexu-arrazoiengatiko jazarpena. Funtzionarioak: emakumeentzako erreserben kuotak
Q20130033	Sexu-jazarpena enpresan
Q20130045	Adingabe batentzako adingabeen zentroa aldatzeko eskatu da
Q20130072	Sexu-bereizkeria lanean
Q20130094	Haurdun dagoen emakumea kaleratzea
ARARTEKOaren Erakundeari	
Q20130040	Ertzaintzak emandako tratuaengatik
Q20130068	Sexu-jazarpena lanean, enpresa publiko batean
Q20130069	65 urteak betetzean zerbitzu aktiboan jarraitzeko ukapena
Q20130087	Hezkuntza Sailarekiko arazoak, eskolatzeko kontuengatik, dibortzio-prozesu baten ondoren.

ATZERA BOTA DIRENAK				
Erreferentzia-zk.	Gaia	D	EA	GE
Q20130015	Gizon batek banantze eta dibortzioetako hitzarmenetan irizpide sexistekin ados ez dagoela azaldu du			
Q20130016	Enpresa baten aurkako salaketa, ustezko sexu-bereizkeriagatik			
Q20130101	Langile autonomoa den eta haurdun dagoen emakume bati mutuak haurdunaldiko arriskuagatik baja ukatu dio			

GE: Ez dago lotuta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen gaitasun-eremuarekin.

U: Alderdi auzi-jartzaileak uko egitea.

EA: Eskatutako datuak ez aurkeztea.

3.2 Bideratutako eta gutxietsitako salaketak

BIDERATUTAKOAK	
Erreferentzia-zk.	Estatuko Emakumearen Institutuari
D20130001	NATURA markari salaketa, etiketagatik: "si no sabes lavarlo dáselo a tu madre"
D20130011	Emakume espainiarren aurkako bortxakeria Acapulcon (Mexiko)
D20130039	Lan-eskaintza diskriminatzailearen ondoriozko salaketa
D20130046	Publizitateko iragarki sexistaren ondoriozko salaketa
D20130055	Publizitateko iragarki sexistaren ondoriozko salaketa
D20130080	Pipen kanpaina baten publizitate sexistaren salaketa
D20130081	Iragarki sexista baten salaketa, RAE-Estatuko Publizitate Agentzia
D20130077	Telesail baten kapitulu baten salaketa.
Erreferentzia-zk.	ARARTEKOaren Erakundeari
D20130088	EUSTATEN inkesta aktiboak egiteko tratamendu sexistaren ondoriozko salaketa; izan ere, "gizonari edo familiaburuari" zuzenduta daude.

GUTXIETSIK				
Erreferentzia-zk.	Gaia	D	EA	GE
D20130021	Herritar baten salaketa; baliabide ekonomikorik ez duen emakume etorkin batentzako laguntza eskatu du			X
D20130043	EHUko ikasleen arteko ustezko jazarpena.			
D20130056	Salaketa bat Bilboko erakusleihu bateko maniki sexista batengatik			
D20130071	Padel zale eta jokalaria batzuek Bilboko World pádel tour-eko antolatzaileen aurkako salaketa aurkeztu dute emakumeen parte-hartzea ezkututzeagatik		X	
D20130104	Mutuak langile baten haurdunaldian arriskua aintzatesteari ezezkoa ematea.	X		
D20130066	Lan-eskaintza sexista		X	
D20130073	Salaketa "despecho" izeneko generoko abestien aurka, matxistak izateagatik			X
D20130089	Publizitateko kartel sexista		X	

GE: Ez dago lotuta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen gaitasun-eremuarekin.

U: Alderdi auzi-jartzaileak uko egitea.

EA: Eskatutako datuak ez aurkeztea.

